

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Izan gaitezen



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Munstro abertzalea

IGNAZIO AIESTARAN

Elkar, 2003

Munstro abertzalea da, momentuz behintzat, Ignazio Aiestaranen poesia emaitza bakarra. Munstroa. Ez dakigu oraindik naturaren legeez at eraturiko izaki biziduna, edo jarduera intelektual eta ahalmen handiko pertsona. Baina munstroa. Nolakoa? Bestetik ez bada, “nik neuk daramadan munstro hori”: nortasun-agiri frankistek eman izena duena, euskara maitale duena, etorkizuna izanik etorkizunik ez duena, kalean eskubiderik aldarrikatu ezin eta kale-borroka guztiak kritikatzera kondenatu dutena. “Denok barruan daramagun munstrokeria hori”. Eta abertzalea. “Abertzalea izan ez arren”. Alegia: “abertzalea naiz,/ Lurreko txoko honetatik/ilargia/ nola ikusten den/ gustuko izatea/ abertzale izatea bada”. Bestela ere esan daiteke: frantsesen artean espainiarra, espainiarren artean baskoa, baskoen artean nafarra, nafarren artean putobaskoa, etc.

Ez bakarrik nolakoa munstroa eta zergatik abertzalea. Galdera gehiago ere badira: Zer da herria? –“Denok ulertzen dugun/ eta inork mugatu ezin duen zerbait”–. Zer naiz ni? –“Orojakileen artean ezjakina,/ bizidunen arteko hildakoa”–. Kristo hemen jaio balitz: Jainkoak esango zukeen ez zela bere semea. Eta galderarik ez denean, da sententzia, zuzen-zuzenean urdailera doana: salatzailea –“hautestontzien demokrazia/ beirazko kutxa bezain hauskorra da”–, ekologista –“orain baskoak garela/ hasiera batean basokoak ginelako”–, herrijasotzailea –“Eraikuntza nazionala: Guggenheim museoa”–, beti gure miseriak agerian uzten dituen –“21 dira/ 1987an Bartzelonako hipermerkatuan/ jarritako bonba batek

asasinatuak,/ zu eta ni bezalako 21 lagun hil”–. Poema batzuek, egia da, ideia on batek –Itoizko urtegiak ari dela: “Ura dakarrenak/ urrea darama”–, akaso ez dute behar besteko garapenik, edo hitz joko hutsean geratzen dira: “burujabetza lortu ordez/ burujabetza izango dugu”. Baina, oro har, eta urte gutxi batzuk joan diren arren, gaurkotan batere galdu ez duen bilduma da.

Eta liburua hor geratuko balitz, ez litza-teke gutxi. Baina, ez, badu bigarren zati bat, epilogo: “Irakurketari jarraituz gogoetan”, Joxe Azurmendirena. “Poesiak ez digu puskailetan dagoen etxea birreraikiko. Eraman-garriagoa eginen digu, hala ere, gure patua”. Unibertsaltasunaz, diferentziaz, nongotartasunaz, mestizaiaz, gatazka politikoaz, poesiaz –“Poeta bat hori da: behin eta berriro moztarok erori egiten zaizkion bat”–. Labur, Azurmendi, distirant, bere onenean. Esan daiteke, beraz, bi liburu direla bakarrean. Bukatu aurretik, ordea, Azurmendiren azken gomendioa: “Bere burua norma deklaratu daukan mundu anormal honetan, izan gaitezen, bada, munstro”. ■



Ignazio Aiestaran
Iruñeko poeta.